



**EBAZPENA (01/2010 esp., ARABAKO BARNE
DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO
OFIZIALA)**

Osoko bilkura

Joseba Andoni Bikandi Arana jauna, lehendakaria

Juan Luis Crucelegui Gárate jauna, lehendakariordea

María Pilar Canedo Arrillaga andrea, kidea

José Antonio Sangroniz, idazkaria

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a

Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiak (LDEA), adierazitako kideak bertan direla eta Joseba Andoni Bikandi Arana jauna txostengile dela, ebazpen hau egin du ARABAKO BARNE DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALARI buruzko 01/2010 espedientean. Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak (LDEZ) hasi zuen hori, V.M.P. eta G.R.F-L andreak ipini zituzten salaketan ondorioz. Salaketa horietan adierazi zen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak, ustez, lehia murrizten duten jardunbideak egin zituela.

I. AURREKARIAK

1. 2008ko irailaren 22an, dagoeneko ez dagoen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendariak bidalitako ofizioa sartu zen LDEZn, V.M.P. andreak Zuzendaritza horretan aurkeztutako idazkia erantsita zuela. Idazki horretan aipatu zen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak elkargoko kide izateko eskabidea ukatu ziola, titulazio egokirik ez zuela argudiatuz. Hala ere, titulazio hori bai onartzen du Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaiak bermatzen duen bezala.



2. 2008ko irailaren 25ean, LDEZk V.M.P. andreari jakinarazi zion lehiaren defentsaren alorreko espedientea irekitzeko eskatzeko aukera zegoela, interesdunak eskatuta.
3. 2008ko urriaren 14an V.M.P. andreak salaketa aurkeztu zuen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren kontra, bertako kide izatea ukatu ziolako, 1464/1995 Errege Dekretuan araututa dagoen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren tituluak (III. maila) lan horretan jarduteko gaitasunik ematen ez diola argudiatuz.
4. 2008ko urriaren 15ean, LDEZk erabaki zuen informazio erreserbatua hasiko zela, hala balegokio bidezko zehapen-espedientea ireki aurretik, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen (LDL) 49.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.
5. 2008ko urriaren 29an LDEZk idazkia bidali zion Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari, informazioa eskatuz).
6. 2008ko azaroaren 20an, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren idazkia jaso zuen LDEZk. Idazki horren bitartez adierazi zuen elkargo profesional *horrek duen irizpidea* ez duela zerikusirik lehia murriztearekin, zorrotz betetzen direla Elkargo Profesionalei buruzko legean emandako zereginak eta Kontseilu Nagusiaren zuzentarauetatik eratorritakoak. Horretarako hainbat agiri aurkeztu dituzte.
7. 2009ko maiatzaren 20an G.R.F-L andreak salaketa aurkeztu zuen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren kontra, elkargo horrek ez duelako onartzen 1464/1995 Errege Dekretuan araututa dagoen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren tituluarekin (III. maila) bertako kide izatea eta, ondorioz, Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialeko kide egin behar izan duelako.
8. 2009ko maiatzaren 27an LDEZk erabaki zuen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren inguruko informazio erreserbatua hasi zuen 2008ko urriaren 15eko Ebazpena handituko zela. G.R.F-L andreak aurkeztutako salaketa-idazkia sartu zen informazio erreserbatuari buruzko 9/2008 Espedientean, eta salatzailetzat hartu zen, V.M.P. andrearen baldintza berberekin.
9. 2009ko azaroaren 3an, LDEZk, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 17/2007 Legearen 49.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari Lehiaren Defentsari buruzko Legean debekatutako jokabideen ondoriozko zehapen-prozedura irekiko zitzaiola ebatzi zuen. Halaber, espediente horretarako instruktorea eta idazkaria izendatu zituen. Ebazpen hori 2009ko azaroaren 4an jakinarazi zitzaion Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari eta gainerako interesdunei. Halaber, egun berean, espedientea irekitzeko



probidentziaren berri eman zitzaion Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegiari.

10. 2009ko azaroaren 12an espedientearen instruktoreak gertakarien berri zehazki ematen duen agiria idatzi zuen, Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera. 2009ko azaroaren 16an jakinarazi zitzaion interesdunei.
11. 2009ko azaroaren 16an jakinarazi zien LDEZk interesdunei gertakarien berri zehazki ematen duen agiria, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 50.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.
12. 2009ko abenduaren 1ean, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak idazkia bidali zion LDEZri, eta horren bitartez alegazioak aurkeztu zizkion gertakarien berri zehazki ematen duen agiriari.
13. 2010eko urtarrilaren 14an, LDEZk probidentzia eman zuen eta, horren bitartez, informazioa eskatu zion Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari datu hauei buruz: diru-sarrera eta gastuen kontuak, ikus-onetsitako proiektu guztien kopuru eta zenbatekoak, eta elkargoak obra-lizentzia ematearen mendeko ikus-onetsitako proiektuak, 2007ko, 2008ko eta 2009ko ekitaldiei zegokienez. 2010eko otsailaren 19an bidali zen informazio hori.
14. 2010eko urtarrilaren 14an, LDEZk idazkia bidali zuen Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskolaren zuzendaritzara, informazioa eskatuz. 2010eko otsailaren 3an bete zen informazio hori, eta 2010eko otsailaren 10ean eta 26an informazio osagarria jaso zuen LDEZk.
15. 2010eko urtarrilaren 25ean Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren idazkia sartu zen LDEZn. Horren bitartez, berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen Elkargoaren diru-sarrera eta gastuei eta ikus-onetsitako proiektu kopuruari buruzko kontabilitate-informazioa eskatu zuen LDEZren probidentziaren kontra, eskaera horrek zehapen-espedientea bideratzearekin zerikusirik ez duela uste duelako.
16. 2010eko urtarrilaren 28an, LDEZk, berraztertze errekurtsoa onartu ez zela zioen probidentzia jakinarazi zion Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari, figura hori ez dagoelako LDLn aurreikusita. Halaber, probidentzia horren bitartez, hamabost asteguneko epea eman zitzaion eskatutako informazioa aurkezteko.
17. 2010eko otsailaren 26an, LDEZk instrukzio-fasea itxiko zela erabaki zuen, eta Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari eta gainerako interesdunei jakinarazi zien.



18. 2010eko martxoaren 3an instruktoreak ebazpen-proposamena egin zuen, eta behar bezala jakinarazi zitzairen interesdunei. Era berean esan zitzairen, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 50.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamabost asteguneko epea emango zitzaizela, jakinarazpena egin eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita, egokitzat jotzen zituzten alegazioak egiteko.

19. Ebazpen-proposamen horren bitartez honakoa proposatu zion instruktoreak LDEAri:

LEHENENGOA: Adieraz dezala Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2.d) artikulua debekatzen dituen lehia murrizten duten jardunbideak egin zirela, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2.d) artikuluan tipifikatutako jardunbidea egin zelako. Honakoa dio, hitzez hitz artikulua horrek: *“Debekaturik geratu da enpresa batek edo batzuek duten nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu nazional osoan edo horren zati batean.*

Gehiegikeria, zehazki, ondorengoak izango dira: [...] Merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezartzea baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.”

BIGARRENA: Debekatutako jokabide horien erantzuletzat ARABAKO BARNE DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA har dezala (IFK: Q0100190H; sozietatearen egoitza: POSTA KALEA 18, 5. SOLAIRUA, 3. DEPARTAMENTUA, 01001, VITORIA-GASTEIZ).

HIRUGARRENA: Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 53. artikulua aipatzen dituen gainerako adierazpenak har ditzala.

20. 2010eko martxoaren 23an, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak, bere ordezkariaren bitartez, alegazioak egin zizkion ebazpen-proposamenari. Hona hemen alegazioak:

1.- Aurretiaz, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren legezko ordezkariak, aditzera eman zuen Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuak ez zuela eskumenik zehapen-prozeduraren instrukzioa egiteko.

Elkargoko kide izateko eskatzen duen III. mailako tituluduna Estatuko edozein lekutakoa izan daiteke, edo hainbat probintzian egin dezake lan, Estatuko leku guztiei eragiten diela Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak elkargoko kide izateko egindako ukoak.



- 2.- 1464/1995 Errege Dekretuak ez ditu aldatu dekoratzailearen lanbidea, elkargoko kide izateko modua eta horien eskumen profesionalak arautzen dituzten Konstituzioaren aurreko arau biak (Dekoratzzaileen eskumen profesionalak arautzen dituen 902/1977 Errege Dekretua eta 893/1972 Dekretua). Ez dira aldatu, eta 1464/1995 Errege Dekretuak ezin zituen aldatu. Hori dela eta, Elkargoak legezko arau-eremua baino ez du betetzen, eta Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 4.1 artikuluko kasua da hau.
- 3.- Hala eta guztiz ere, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua (III. maila) ezarri zuen 1464/1995 Errege Dekretuari dagokionez, honakoa zehaztu zuen Elkargoak:
 - a) "Elementu isolatuak", "obra xumeak", "*eraberritze txikiak*" diseinatzeko azterlanak sortzen ditu, hau da, jarduera txikiak eta dekoratzailearen lanak baino garrantzi txikiagoa dutenak.
 - b) "Interioristak" ere "*goi-mailako*" profesional gisa azaltzen dira dekretu horretan.
 - c) Duen "profil profesionalak" hezkuntza-antolamenduko irizpideari baino ez dio erantzuten. Errege Dekretuak berak, bigarren xedapen gehigarrian dio profil profesionalaren deskribapen horrek "*ez duela lanbide tituludunaren jarduna arautzen*".
- 4.- III. maila Hezkuntza Ministerioak diseinatutako curriculum akademikoa da, eta interiorismo eta dekorazioko lanetako "laguntzaileak" izango diren etorkizuneko profesionalentzat da. Hala ere, hezkuntza-antolamendu horrek ez du eraginik antolamendu profesionalean, Sustapen Ministerioaren eskumena dela azken hori.
- 5.-440/1994 Errege Dekretuak balio bera eman zien dekoratzaileen ikasketei (2127/1963 Dekretuan araututako irakaskuntza) eta goi-mailako teknikariaren titulazioari, baina horrek ez du garrantzirik. "Goi-mailako teknikaria" 1/1990 Lege Organikoaren 35.2 artikuluan aipatzen dena da, hau da, lanbide-heziketakoa, eta ez III. Mailakoa. 1999ko maiatzaren 14ko Aginduak ere baliokidetzat eman zuen elkargoko kide izateko parekatu nahi den tituluarekin, baina horrek ere ez du garrantzirik.
- 6.-Arabako Barne Dekoratzzaileen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak eta Gipuzkoako Barne Diseinatzaile / Dekoradoreen Elkargo Ofizialak duten irizpide hori 2000ko maiatzaren 12an Madrilen egindako Kontseilu Nagusian bertan defendatu zen. Bertan, berenberegiz adierazi zen goi-mailako teknikariaren titulua ez zela nahikoa tituludunak gaitzeko barne-diseinatzaileen eta dekoratzaileen elkargoko lanbidean jarduteko. 2000ko abenduaren 1ean egin zen Kontseilu Nagusiaren osoko bilkurak onetsi egin zuen lanbidean



jarduteko gaitzen duen titulua Barne Diseinuarena dela —baliokidea unibertsitate-diplomadunarekin (IV. maila)— 1496/1999 Errege Dekretuak ezarritakoaren arabera. Era berean ezarri zen beheragoko mailako titulazioek (esaterako teknikariarenak, III. maila) ez zutela eragiten berehala izatea elkargoko kide, lanbidean lan-merkatuko eskakizunei jarraituz duintasunez eta erantzukizunez jarduteko beharrezko jakintzak edukitzeari buruzko ziurtagiriarekin osatu behar baita.

7.-Dekoratzailen eskumen profesionalak arautzen dituen 902/1977 Errege Dekretuak eta Dekoratzailen Elkargo Nazionala sortzen duen 893/1972 Dekretuak Dekoratzailen lanbidea instituzionalizatzen dute, titulazio zehatza eta zenbait ahalmen eta eskumen profesional emanez. Dituen eskuduntza profesionalen mugaketa zehatza egiten da. Konstituzioak, 36. artikulua bitartez, lege-erreserbaren printzipioa ezarri zuen lanbide tituludunetan jarduteko. Konstituzioak ezarritako lege-erreserba horrek ez dio eragiten 902/1977 Errege Dekretuari. Horixe aitortu du Auzitegi Gorenaren 2007ko azaroaren 19ko epaiak.

8.-Instruktoreak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorenaren 2000ko abenduaren 29ko epaia aipatzen du. Bertatik ondorioztatu du III. maila balioduna dela Arabako Elkargoak titulu hori duten eskatzaileak elkargoko kide egin ahal izateko.

9.-Salatzaileek ez dute errekursoaren administrazio-bidea agortu.

21.2010eko apirilaren 6an, LDEZk, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 50.5 artikuluan xedatutakoari jarraituz, 9/2008 zehapen-espeditentea bidali zion LDEAri, ebazpena eman zezan. Espeditentearekin batera, txosten bat ere bidali zuen, eta bertan ebazpen-proposamena eta interesdunek egindako alegazioak azaldu ziren. Zehapen-espeditentearekin batera bidalitako txostenean, instruktoreak adierazi du Elkargoak ebazpen-proposamenari ipinitako alegazioak bat datozela, funtsean, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak gertakarien berri zehazki ematen duen agiriaren kontra aurkeztutako alegazioekin, eta ez dutela inola ere indargabetzen bertan adierazitakoa, eta guztiz errepikatu da.

22.LDEZk bidalitako zehapen-espeditenteak 01/2010 zenbakia (ARABAKO BARNE DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA) hartu du LDEAn.

23.LDEAk, 2011ko apirilaren 20an egindako osoko bilkuran, espeditente horri buruz eztabaidatu eta epaia eman zuen.

24.Honako hauek dira interesdunak:



- ARABAKO BARNE DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALA
- V.M.P. andrea
- G.R.F-L. andrea

II. FROGATUTAKO GERTAERAK.

25.LDEZk LDEA honek irizteko eta ebazteko eman duen administrazio-espeditentea aztertu ondoren, aipatzekoa da jarraian zerrendatu diren gertakariak zehapen-prozeduraren instrukzio-fasearen bitartez egiaztatu direla.

LEHENENGOA: Honako hauek dira Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko kide izan ahal izateko gaitzen duten titulazio ofizialak: Arte aplikatuetako, dekorazioko eta publizitate-arteko graduatua, 63ko ikasketa-planean, eta Barne-diseinatzailea, 84/86ko ikasketa-planean. (183. folioa)

Titulazio biek dute 5 urteko iraupena, eta ez da batxilergorik behar. (158. folioa)

BIGARRENA: Salatzaileek duten Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua 2 urteko iraupena duen goi-mailako heziketa-zikloa egin ostean eskuratzen da. Heziketa-ziklo hori egin ahal izateko ezinbestekoa da batxilergo-titulua izatea.

HIRUGARRENA: Arabako Elkargoko kideen kopurua 74 pertsonakoa da, eta guztiek dute honako tituluren bat: Arte aplikatuetako, dekorazioko eta publizitate-arteko graduatua, 63ko ikasketa-planean, eta Barne-diseinatzailea, 84/86ko ikasketa-planean. (182. folioa).

LAUGARRENA: Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren jarrera Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariak elkargoko kide egitearen kontrakoa da. (182. folioa)

BOSGARRENA: Ezin denez Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko kide izan, V.M.P. andrea Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialeko kidea da, jarduneko dekoratzailearen 560-BI zenbakiarekin (185. zenbakia), eta G.R.F-L andrea jarduneko dekoratzailearen 559-BI zenbakiarekin dago Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialean (189. folioa).



SEIGARRENA: Dekoratzailen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiko elkargoetara dagokienez, bakoitzak bere irizpidea du elkargoko kide izan ahal izateko onartutako titulazioen inguruan. Honakoa adierazi zen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak erantzuteko bidali zuten idazkian (183. folioa):

“Kontseiluan ezarritako irizpideak direla eta, jarrera ezberdinak izan dituzte Kontseiluko kideak diren elkargoek. Gauza bakar batean daude ados: III. maila ez da titulazio-akademiko nahikoa. Jarrera ezberdinak daude, batzuek bestelako baldintzarik eskatu gabe egiten dituzte elkargoko kide III. mailako tituludunak, beste batzuek prestakuntza osagarria eskatzen dute elkargoko kide egin ahal izateko, eta beste batzuek ez dute elkargoko kide izateko aukerarik ematen, esaterako ni buru nauen elkargoak.”

ZAZPIGARRENA: Lanbide berean jardun ahal izateko gaitzen duten hainbat titulazio daude. Elkargoak emandako agiri batean honakoa dio Dekoratzailen Elkargo Ofizialen Kontseilu Nagusiak: “Interiorista, barne-diseinatzaile, barne-arkitekto edo dekoratzailearen lanbidea Estatuak arautzen du, eta dituen curriculum akademikoak eta izen ezberdinak jarduera berari buruzkoak dira”. (158. folioa)

ZORTZIGARRENA.- Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialak aukera ematen du Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariak elkargoko kide izateko.

III. ZUZENBIDEKO OINARRIAK.

26. APLIKA DAITEZKEEN ARAUAK.

2007ko irailaren 1ean sartu zen indarrean Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legea. 2009ko azaroaren 3an ireki zen zehapen-espeditentea eta, beraz, Lehiaren Defentsari buruzko indarrean dagoen 15/2007 Legearen arabera izapidetu da espeditentea.

27. ALDEZ AURREKO GAIK

27.1- Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak sio LDEZk ez duela eskumenik elkargo baten jardura modu isolatuan epaitzeko, autonomietako zerbitzu ezberdinek irizpide ezberdinak izan ditzaketelako gai horren inguruan. Kontseilu Nagusiak ezarri du III. mailako prestakuntza akademikoa ez dela nahikoa, eta bertako kideak diren elkargoek jarrera ezberdinak izan dituzte horren inguruan.



Hasieran, LDEAk aztertu behar du LDEZk zehazpen-espedita ireki eta instrukzioak egiteko duen eskumena eta, horrek, hedaturaz, LDEA honek aipatutako prozedura ebazteko duen eskumenari eragiten dio. Gai hori gertakarien berri zehazki ematen duen agiriari egindako alegazioetan ere azaldu zen, ebazpen-proposamenari egindako alegazioetan ere errepikatu zen. Bada, erantzun egokia izan du zuzenbidean, zehapen-prozeduraren instruktoreak egindako ebazpen-proposamenean, eta horri lotuko zaio Auzitegi hau. Hona hemen hitzez hitz dioena:

Horri dagokionez aipatu beharra dago Estatuak eta autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten eskumenak koordinatzeko otsailaren 21eko 1/2002 Legeak honakoa dioela 1. artikularen 3. atalean: *“Lehia Babesteko uztailaren 17ko 16/1989 Legeko eskumenak erabiltzea, lege horretako 1., 6. eta 7. artikuluetan aurreikusitako jokabideetarako prozeduretan, gai honi buruzko eskumenak dituzten autonomia-erkidegoen ardurak izango da —nork bere lurraldean izango du ardurak hori—, baldin eta jokabide horiek lehia garbia dena delako autonomia-erkidegoan itxuraldatzen badute edo itxuraldatzeko modukoak badira, autonomia-erkidegoaz gaindi edo nazio-merkatu osoari eragin gabe.”*

Erakundeen gatazkak saihestu edo murrizteko asmoz, aipatutako legearen 2. artikulua noranzko biko jakinarazpen-prozedura ezartzen du. Horrela bada, dagoen dokumentazioa bidaltzen da, kasu honetan Lehiaren Batzorde Nazionalari, jarduerak hasi baino lehen, eskumena autonomia-erkidegoari ematearekin ados dagoen ala ez adieraz dezan.

Kasu honetan 2008ko irailaren 25ean oha laburra bidali zitzaion Lehiaren Batzorde Nazionalari (25-28 folioak), bai eta kasuari buruzko agiri erantsiak ere, instrukzioak egiteko eskumena Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari zegokiona adieraziz.

2008ko urriaren 10ean Lehiaren Batzorde Nazionalak adostasun-idazkia bidali zuen (36. folioa), eta bertan honako iritzi hau azaldu zuen: *“Euskal Autonomia Erkidegoko organoak dira Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2003 Legearen ustezko arau-hausteak aztertzeke eskumena duten organoak”.*

Lehiaren Batzorde Nazionala bat dator Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuaren irizpidearekin, hau da, azken horrek eskumena duela espedientearen instrukzioak egiteko, eta hainbat autonomiatako organoak antzeko prozedura baten inguruan hartutako erabakian ados ez egotea ez dela, inola ere, eskumena galtzeko arrazoiak. Ahal den heinean hori gerta ez dadin, 1/2002 Legeak berak koordinazio-tresnak aurreikusi ditu 5. artikularen hirugarren atalean (*“Lehia Babesteko Legea berdintasunean aplikatu dadin saiatzearen, autonomia-erkidegoek lehia babesteko dauzkaten organoek izapideturiko administrazio-prozeduretara agertzeko aukera izango du Lehia Babesteko Zerbitzuak [gaur egun Lehiaren*



Batzorde Nazionalaren Ikerketen Zuzendaritzak], *interesdun modura. Prozedurari amaiera ematen dioten akordio eta ebazpen guztiak autonomia-erkidegoetako organoek Lehia Babesteko Zerbitzuari [ídem] jakinarazi behar dizkiote, berdin izapide-aldian hartu dituzten edo ebazpen-aldian hartu dituzten, horrela, zerbitzu horrek akordio horien aurkako errekurtsua jartzeko aukera izan dezan, hartarako toki egokian, hala egin behar bada”).*

Horrexegatik baztertu behar du Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek bertan azaldu den eskumenaren inguruko gaia.

- 27.2.- Salatzaileek duten tituluan oinarrituta Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarrak elkargoko kide izateko eskaerari uko egiteko erabakiaren aurrean administrazio-errekurtsorik ez egoteari dagokionez, LDEA honek uste du garrantzirik gabeko errugabetze-argudioa dela. Egia da salatzaileek bidezko errekurtsua ipintzeko eskubidea dutela, baina errekurtsorik ipini ez izanak ez du eragozten eskubideak babesteko antolamendu juridikoak aurreikusitako beste mekanismo juridiko batzuk erabiltzea, esaterako lehiaren defentsakoak. Hori dela eta, zorrotz gaitzetsi behar da Elkargo Ofizialaren legezko ordezkariak azaldutako errugabetze-argudioa.

28. ESPEDIENTEAREN HELBURUA.

Espediente honen helburua LDEZk egindako ebazpen-proposamenak mugatzen du. Horren arabera, LDEA honek aztertu eta ebatzi egin behar du Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak egindako jokabidea, hau da, 1464/1995 Errege Dekretuak araututako Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren tituluak dituzten pertsonen elkargo profesionaleko kide izateko eskaera ukatzea, bat datorren lehiaren defentsari buruzko araudiarekin. LDEZren ustez jokabide hori Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 2.d artikulua kontrakoa da, elkargo profesional horrek baldintza ezberdinak ezartzen dituelako baliokideak diren zerbitzuetarako eta, ondorioz, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariek desabantailak dituzte dekorazioan espezializatutako arte aplikatuetako graduatuekin (63ko ikasketa-planean) eta barne-diseinuko graduatuekin (84/86ko ikasketa-planean) alderatuta, horiexek baitira Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko kide izateko aukera ematen duten titulazioak.

29. ERREFERENTZIAKO MERKATUA.

LDLren 2. artikulua debekatu egiten du enpresa batek duen nagusitasunezko posizioa gehiegikeriaz ustiatzea merkatu osoan edo horren



zati batean, besteak beste merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan, baldintza ezberdinak ezarrita baliokideak diren prestazioentzat, eta horrek lehiatzaile batzuei desabantailak eragitea beste batzuen aurrean.

Nagusitasunezko egoeraz abusatzearen bitartez lehiaren defentsari buruzko araudia hautsi den egiaztatzeko, lehenengo eta behin, merkatu adierazgarriak ezarri behar dira aurretiaz, enpresa inputatuak benetan nagusitasuna duen argitzeko; gero, hala badagokio, merkatuan duen nagusitasunezko egoera hori abusuz erabili duen aztertu beharko da. EEJAren Epaia, 1978ko otsailaren 14koa, United Brands Continental/Batzordea, 27/76).

Produktu-merkatua dekorazio-zerbitzuena da, kontuan hartuta dekoratzailea dela irizpide estatiko eta funtzionalekin bulegoen, etxebizitzaren edo merkataritza-establezimenduen barrualdea diseinatzeaz arduratzen den profesionala. Dekoratzaileak, beraz, barruko espazioen banaketa planifikatzen du bezeroekin batera, dituzten beharrizan, lehentasun eta aurrekontuarekin bat datorren proiektua aurkeztuz.

Horrela bada, dekoratzaileen eskuduntzen artean dekorazio-proiektuak formulatu eta idaztea dago, eraginkortasun juridiko zein erantzukizun osoarekin, betiere egitura elementu gogorrei, eraikinaren konfigurazioari eta obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei eragiten ez badiete, hain zuzen, onetsitako proiektuan xedatutakoak eta dagozkion administrazio-lizentziak ematea eragin dutenak.¹ Gauzak horrela, obra-lizentzien eskaerekin batera, obra behar bezala egingo dela bermatzeko proiektu teknikoa aurkeztu behar da. Proiektua idatziko duen teknikariak hori egiteko legezko eskumena izan behar du.

Geografia-eremuari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzuari atxikitako ezaugarriak kontuan hartuta (hurbiltasuna, berehalakotasuna, obra-lizentziaren beharra, etab.), merkatu hau Arabako lurraldean garatzen dela. Gainera, dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko elkargoko kidea izan behar dela kontuan hartuta, merkatua bat dator Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren eremuarekin. Horri dagokionez aipatu beharra dago lurralde-esparru berean ezin dela elkargo bat baino gehiago egon lanbide berbererako.

Merkatu adierazgarria, beraz, Arabako Lurralde Historikoko dekorazio-zerbitzuena da.

Dekoratzailearen lanbideak oztopo bi ditu merkatura heltzeko: batetik titulua izan behar dela eta bestetik elkargo bateko kidea izan behar dela.

¹ 902/1977 Errege Dekretua, apirilaren 1ekoa, Dekoratzailen eskumen profesionalak arautzen dituena.



Titulazioari dagokionez, hainbat titulaziok gaitzen dute dekoratzailearen lanbidean jarduteko; hona hemen:

- Arte aplikatuetako graduatuaren titulua, uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena.
- Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan, irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuena.
- Diseinuko titulua, barnealdean espezialitatean, irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuena.

Elkargo bateko kidea izateari dagokionez, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko kide izateko bete beharreko baldintza, bere estatutuetan dakarrenaren arabera, honakoa da: “Diseinuko titulua izatea barnealdean espezialitatean, 1999ko irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuenaren arabera, edo lanbide horretan jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen beste tituluren bat izatea”. Irizpide horri jarraiki, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak arte aplikatuetan graduatutako 74 profesional bakarrik onartu ditu bertako kide izateko, guztiek dituztela 63ko ikasketa-planeko eta 84/86ko ikasketa-planeko tituluak.

Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskola 1994. urtean sartu zen Eusko Jaurlaritzaren hezkuntza-sarean, eta horixe da Euskal Autonomia Erkidegoko Diseinuko goi-mailako eskola bakarra. Eskola honek “Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritza” izeneko Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako heziketa-zikloa eman du, eta hori bateragarria da, ondore guztietarako, 63ko eta 84/86ko ikasketa-planetako Arte aplikatuetako graduatuaren tituluarekin.

Ziklo hori 1998-1999 ikasturtean eman zen lehenengoz. Guztira 189 ikaslek eskuratu zuten espezialitate horretako goi-mailako teknikariaren titulua, eta horietatik 60 bizi dira Araban. Azken promozioa 2008-2009 ikasturtean graduatu zen, eta gaur egun ez da ziklo hori ematen. 13 ikasle baino ez daude matrikulatuta, eta horiek azken proiektua amaitu behar dute titulua eskuratu ahal izateko.

Eskola ofizial bakarra Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskola denez, ikasleak hiru lurralde historikoetakoak dira. “Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritza” izeneko Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako titulua eskuratu duten kideen % 30 bakarrik bizi dira Araban. Beraz, paradoxa hau eragin da: ikasle batzuek, Bizkaian bizi direnek, ikasketak amaitu eta berehala izan dute elkargoko kide izan eta lanean hasteko aukera, baina Araban bizi direnek desabantailak izan dituzte lan egin ahal izateko.



Bestalde, irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak araututako Diseinuko goi-mailako ikasketak, barnealdean espezialitatean, —baliokideak direla, ondore guztietarako, unibertsitate-diplomadunarekin— 2005-2006 ikasturtean hasi ziren ematen aipatutako eskolan. Titulu horrek 18 ikasle izan ditu guztira orain arte, eta horietatik 7 bizi dira Arabako lurralde historikoan.

Laburbilduz, elkargo bateko kideak diren profesionalak 74 dira Araban, eta elkargoko kide izateko eska lezaketen beste 67 tituludun daude guztira. Bada, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak onartu egin beharko lituzke, lanbidean jarduteko legez eskatzen den titulua dutelako.

Lanbidean jardun ahal izateko hainbat titulazio egon arren eta titulazio horiek graduazio ezberdina izan arren (batek unibertsitate-diplomaturaren kategoria du), hori ez da eragozpena izango guztiek lanbidean jarduteko gaitasun osoa bermatzeko. Hala ere, kasu zehatz batzuetan, dekoratzailearen zerbitzuak kontratuko dituen pertsona edo erakundeak dekoratzaileak unibertsitate-titulua izatea eska lezake eta, kasu horretan, diseinuko titulua egiaztatzen duenak bakarrik eskaini ahal izango ditu zerbitzu horiek². Horrenbestez, zenbait tituluren bitartez izan daiteke dekoratzailea.

Amaitzeko, dekorazio-zerbitzuen Arabako negozio-bolumena kalkulatzeko, ikus-onetsi dituen proiektuen kopuruari eta horien zenbatekoei buruzko datuak eskatu zaizkio Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari. Elkargoak adierazi du ikus-onetsitako proiektu guztiek obra-lizentzia ematea behar dutela, aurreproiektuek, epaitegirako perituxostenek eta DBSI-DBSU txostenek izan ezik. Azken horiek ez dute obra-aurrekonturik, eta ustez jarduera garatzeko balio duten lokaletan obrarik egin gabe lokalak irekitzeko lizentzia eskatzeko erabiltzen dira. (405. folioa).

Jarraian azaldutako taulan laburbildu da Elkargoak bidalitako informazioa:

	2007	2008	2009
Lanak, guztira	69	59	48
• Obren proiektu eta zuzendaritzak	57	39	33
• DBSI-DBSU txostenak	3	18	13

² Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren Kabineteko Zuzendaritzako aholkularitza juridikoak 2000ko apirilaren 18an egindako txostenaren inguruko argibideak (espediente honen 285-286 folioak).



• Aurreproiektuak eta aholkularitzak	9	2	2
Zenbatekoa	314.293,75	423.862,63	128.497,72

30. ELKARGO PROFESIONALAK LEHIARI BURUZKO ARAUBIDEARI LOTZEA.

30.1.- Elkargo profesionalek garrantzi konstituzionala dute. Konstituzioak 36. artikuluan identifikatu eta aitortzen ditu, eta horien egitura-ardatza ezartzen du: Elkargoen barne-egiturak eta jardunbideak demokratikoak izan beharko dute. Hori oinarri hartuta, Konstituzioak dio legeriak arautu behar dituela elkargoen araubide juridikoaren berezko berezitasunak eta lanbide tituludunen jarduna.

Konstituzio Auzitegiak Administrazio Korporatiboaren barruan sartzen ditu elkargo profesionalak, eta honela definitzen ditu: Elkarrekin sozialak dira, zenbait interes sozialen arabera, batez ere interes profesionalak, legeei jarraituz eratu direnak. Nortasun juridiko eta publikoa dute, eta sarritan ezinbestekoa izaten da horietako kide izatea.

Elkargo profesionalak Estatuak aitortutako korporazio-mota tipikoa dira, eta horien xedea ez da helburu zorrozki pribatuak lortzea —elkarrekin bakarrik lor liteke hori, Espainiako Konstituzioaren 22. artikulua arabera—, baizik eta batez ere lanbidearen jarduna —zerbitzu komuna— jardun horren eraginkortasuna eta balizko erantzukizuna ziurtatuko duten arauen arabera egokituko dela bermatzea. Bestalde, egia da Estatuak dagoeneko bermatu duela hori titulu gaitzailea ematearen bitartez, eta Konstituzioak dio legeriak izan behar duela askatasunaren printzipio orokorretik kanpo geratu behar duten lanbideak zehaztu beharko dituen, eta lanbide horietatik zeintzuk behar duten elkargo profesional bateko kide izan, aipatutako xedek dituztelako, bai eta, hala badagokio, lanbidean jarduteko aurretiko titulazioa izateko baldintzari eman behar zaion garrantzia baloratuko duena ere. (Konstituzio Auzitegiaren 194/1998 epaia).

Konstituzio Auzitegiak dio Konstituzioak 36. artikulua bitartez ezarri zuela legeriak izan beharko duela askatasunaren printzipio orokorretik kanpo geratu behar duten lanbideak zehaztu beharko dituen, eta lanbide horietatik zeintzuk behar duten elkargo profesional bateko kide izan, aipatutako xedek dituztelako, bai eta, hala badagokio, lanbidean jarduteko aurretiko titulazioa izateko baldintzari eman behar zaion garrantzia baloratuko duena ere. (Konstituzio Auzitegiaren 76/2003 epaia, apirilaren 23koa, FJ 4.)

Nolanahi ere, Konstituzio Auzitegiak dioenez, lanbide bat elkargokoa dela esateko, eta elkargoko kide egiteko baldintzak ezartzeko, konstituzioaren



ikuspegitik ezinbestekoa izango da eraginak izan lezaketen interes orokorrak egotea edo, beste modu batean esanda, beharrezkoa izango da elkargoak konstituzioaren ikuspegitik garrantzitsuak diren xede publikoak lortzea. Erabaki hori zilegia izateko, Elkargoak benetan garatu beharko ditu elkargoko kideak diren profesionalak emango dituzten zerbitzuak hartuko dituzten pertsonen interesak zaintzeko zereginak, baita jarduera profesional zehatzaren eta Konstituzioaren bitartez babestutako zenbait eskubide, balio eta ondasunen artean dagoen harremana zaintzeko zeregina ere.

- 30.2. Legegileak, Espainiako Konstituzioaren 36. artikulua ematen dion gaikuntza erabiltzean, ahalik eta gutxien murriztu beharko ditu, eta justifikatuta, Espainiako Konstituzioaren 22. artikuluan aitortutako elkartzeko eskubidea eta lanbidea edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubidea. Bada, elkargo profesional bat sortzea erabakitzean, kasu zehatz bakoitzean, kontuan izan beharko da elkargo hori egoteak aipatutako funtsezko eskubideei eragiten dienez, interes publikoa emateko beharrak justifikatzen dituenen bakarrik izango direla zilegiak elkargoak konstituzioaren ikuspegitik. Horrela bada, interes orokorreko salbuespenetzko kasuetan bakarrik justifikatu ahal izango da titulazio jakin batekin bakarrik jardun ahal izango dela lanbide batean.

Beraz, lege bidez arautu behar dira lanbide tituludunak, eta honakoak arautu beharko dira: a) lanbide tituludun baten existentzia bera, hau da, lanbide horretan jardun ahal izateko juridikoki ezinbestekoa izatea titulu zehatzak edukitzea, b) lanbide horretan jarduteko beharrezko baldintza eta tituluak eta c) bere edukia eta osatzen duten jardueren multzoa. Izan ere, Konstituzioak 1.1 eta 10.1 artikuluetan aitortzen duen askatasunaren printzipio orokorrak baimena ematen die herritarrei legeak debekatzen ez dituen jarduera guztiak egiteko, betiere zehaztutako baldintza edo betekizunen mende ipintzen ez bada. Halaber, gure Zuzenbidezko Estatuaren funtsezko bermea den lege-erreserbaren printzipioaren helburu nagusia da herritarrei dagozkien askatasun-eremuen erregulazioa horien ordezkarien gogoen arabera izango dela bermatzea eta, horrenbestez, Gobernuaren ekintzatik kanpo geratu beharko dira eremu horiek eta, ondorioz, bere arau-produktuetatik (erregelamenduetatik) kanpo.

Lege-erreserba horiek ezin zaizkie aplikatu Konstituzioa egin baino lehen sortu ziren elkargo profesionalak, eta horregatik ez da beharrezkoa elkargo profesional bat sortzeko ondoren legearen bidez berrestea titulu juridiko gaitzaileari egokitzeko (Espainiako Konstituzioaren 36. art.). Bada, Espainiako Konstituzioa indarrean sartu aurretik sortu ziren elkargo profesionalak, eta da interes orokorraren gogobetetasunari buruzko iritzirik aztertu ente berri hori sortzeko.

- 30.3- Elkargo Profesionalak buruzko Legeak lehiaren defentsaren eremura bideratzen du elkargoen jarduna, elkargo profesionalen akordio, erabaki



eta gomendioek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen mugak zaindu beharko dituztela esaten baitu. (Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 2.4 artikulua).

Elkargo Profesionalek jardunak lehiaren defentsari buruzko araudia betetzeari dagokionez, aipatzekoa da Auzitegi Gorenaren 2010eko apirilaren 26ko epaia.

“Hain zuzen ere, lehenengoari dagokionez, Sala honek sarritan adierazi du Administrazio publikoak, printzipioz, Lehiaren Defentsari buruzko Legea eta, oro har, lehia askearen eremu ezberdinak bermatzen dituen legeria bete behar dituela. Hala adierazi genuen, esaterako, 2007ko ekainaren 19ko epaian (RC 9.449/2.004):

[...] Salbuespen partzialak dio Administrazio publikoen jardunak, administrazio publiko gisa jarduten dutenean, ez duela lehiari buruzko zuzenbidea bete behar, baina adierazi egin behar da guztiz bete behar dutela aipatutako erregulazio hori, eta ezin izango zaiola eragozpenik ipini Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 10. artikuluan adierazitakoa aipatuz, Lehiaren Defentsarako Auzitegiak dioen bezala. Hain zuzen ere, agindu horrek agente ekonomikoak aipatu horren, ez da ulertu behar zuzenbide pribatuaren mendeko agenteek bakarrik jaso ditzaketela horren arabera zehapenak, eta administrazio-zuzenbidearen mendeko agenteek ezin dutela horrelako zehapenik jaso. Aldiz, merkatuan jarduten duen subjektu orori egindako aipamena da, baita administrazio publikoek eurek edo horrelako erakunde eta sozietateek administrazio-zuzenbideari nolabait lotuta jarduten dutenean ere. Gauzak horrela, dagoeneko aipatu den Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen (RCL 1995, 1485, 1948) seigarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera sozietate demandatuak publizitate eta lehia printzipioak bete behar dituen arren eta bere jarduna zati batean administrazio-zuzenbideari lotuta ulertu behar den arren, hori ez da oztopoa izango bere kanpoko jardura epaitu ahal izateko, nolana ere, lehiaren defentsari buruzko araudiaren alorrean.

[...] Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikuluan ezarritako klausulari dagokionez, Sala honek ere iritzia eman du, honakoa ezarritik: ezin da parekatu administrazio publiko baten edo erakunde publiko baten onerako jarduteko legezko gaikuntza edo aurreikuspen batekin. Hori eginez gero, salbuespen orokorra ezarritako litzateke lehiari buruzko zuzenbidea betetzeari dagokionez, administrazio publikoek edo agintaritzak publikokoak diren erakundeek, printzipioz, legeak emandako eskumenak erabiliz bakarrik jarduten dutelako. Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikuluko klausula legezko aurreikuspen moduan ulertu behar da, berez Legearen 1. artikuluko debekuetan egongo litzatekeen jokabide bat egiteko baimena ematen duen legezko aurreikuspen moduan, hain zuzen ere. Aurrerago aztertuko dugu hori.

Elkargo Profesionalek, beraz, guztiz bete beharko dituzte Lehiaren Defentsari buruzko Legearen eta Lehiaren Defentsarako Auzitegiak —gaur egun Lehiaren Batzordeak— ezarritakoa, euren zereginak edozein direla ere, eta publikoak zein pribatuak izan. Gainerakoan argi dago Elkargoetan batutako lanbideak antolatzeke eta horien deontologia arautzeke zeregina, bai



eta, zehatz esanda, ordainsariei buruzko irizpideak ezartzeko zeregina ere, lotesleak izango direnak, izaera publiko ukaezina duen ahalmena direla, eta hori eduki ezean ezin izango litzatekeela nahitaezkoa izan elkargoentzat. “

30.4- Nahitaez elkargo profesiona bati atxikitzeak eta horretarako akademia-titulua izateko beharrak jarduera-erreserba eragiten du, eta hori salbuespena da lanbide edo ogibide baten askatasunezko jardunarentzat. Horrela, titulazio jakin bat dutenek eskusiboki erreserbatzen dute lanbide zehatz baten jarduna.

Titulazio jakin bat dutenen jarduera-erreserba gertatzen da eta, gainera, elkargo profesionaleko kide izan behar denez, elkargoak, profesionalen nahitaezko taldea dela, nagusitasunezko egoera izango du erreferentziako merkatuan, elkargoko kidea izatearen mende egongo baita lanbidea merkatuan garatu ahal izateko aukera. Gainera, Elkargo Profesionalei buruzko euskal legearen 26.2 artikularen arabera, ezin da lanbide bereko elkargo profesional bat baino gehiago egon lurralde-eremu berean. Horrela bada, nagusitasunezko egoera egon da elkargoak duelako erreferentziako merkatuan sartu ahal izateko giltza, eta hala eskatzen duten eta egoitza bakarra edo nagusia bere jurisdikzioko eremuan duten tituludunak elkargoan sartzeko betebeharra duelako, legez.

Elkargo profesionalei buruzko legeak, 3. artikuluan, elkargoko kideak atxikitzeari dagokionez elkargoak dituen zereginak garatzeko irizpideak ezartzen ditu. Hona hemen:

- a) Eskatutako titulazioa duen eta estatutuetan adierazitako baldintzak betetzen dituen pertsona orok, elkargo profesionaleko kide izateko eskubidea izango du.
- b) Elkargoetan batutako lanbideen sarrera eta jardunari dagokienez, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak beteko dira.
- c) Elkartuetan batutako lanbideetan jardun ahal izateko ezinbestekoa izango da dagokion elkargoan sartzea, elkargoa sortzeko legeak, maila bereko ondorengo arauen batek edo, hala badagokio, erregelamendu-xedapenak eta estatutuek hala ezartzen dutenean.
- d) Elkargo profesionalek nahitaez sartuko dituzte elkargoan hala eskatzen duten pertsonak, lanbide horretan jarduteko legez eskatzen den titulua dutela eta aplikatu beharreko xedapenetan eta estatutuetan oro har eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren.
- e) Lanbidea lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, nahikoa izango da horietako batean sartzea, hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan.



- f) Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea indarrean sartu zenean elkargoan antolatuta zeuden lanbideak izango dira, aurrerantzean ere, elkargoan batutako lanbide tituludunak izango direnak.

Arestian aipatutakoaz gain, aurreko puntuan esan den bezala, Legeak lehiaren defentsaren eremura bideratzen du elkargo profesionalen jarduna, elkargo profesionalen akordio, erabaki eta gomendioek Lehiaren Defentsari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen mugak zaindu beharko dituztela esaten baitu. (Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legearen 2.4 artikulua).

31. ARABAKO BARNE DEKORATZAILEEN ETA DISEINATZAILEEN ELKARGO OFIZIALAREN NAGUSITASUNEZKO EGOERA ERREFERENTZIAKO MERKATUAN

31.1- Dekoratzailen Elkargo Nazionala 893/1972 Dekretuaren bitartez sortu zen. Bertan aipatu zen zuzenbide publikoko korporazioa dela, eta berezko nortasun juridikoa duela dituen helburuak betetzeko eta jarraian azaldutako ahalmen orokorrak gauzatzeko: A) Dekoratzailen lanbidea ofizialki, modu eskusiboan eta guztiz ordezkatzeko. B) Eskubide eta betebeharrak profesionalak betetzen direla zaintzea, eskubideak baliatzeko beharrezko neurriak hartuz eta betebeharren inguruko bidezko kontrola eginez. C) Elkargoko kideen Gizarte Segurantzaren inguruko beharrezko kudeaketak egitea. D) Lanbideari buruzko kultura-jarduerak antolatu eta garatzea, gehiago hobetzeko. E) Administrazio publikoari informazioa, proposamenak eta lankidetzak ematea aipatutako lanbideari buruz. F) Deontologia profesionalak betetzen den zaintzea, diziplina-eskumenak erabiliz elkargoei dagokienez eta Araudian aipatutako zehapenak ezarriz egiten dituzten akatsak zehatzeko. G) Elkargoko kideak ordezkatzeko agintaritza eta erakunde publikoen aurrean, legean aurreikusitakoaren arabera.

31.2- Konstituzioa onetsi eta indarrean sartzearen ondorioz, gero Euskal Autonomia Erkidegoa eratzearen ondorioz (3/1979 Lege Organikoa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren) eta azken horrek elkargo profesionalari buruzko eskumenak hartzearen ondorioz, Eusko Legebiltzarrak 18/1997 Legea onetsi zuen, tituludun lanbideak eta profesionalen elkargo eta kontseiluak arautu zirela bertan. 378/1998 Dekretuaren bitartez Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Dekoratzailen Elkargo Profesionalak sortu ziren, Dekoratzailen Elkargo Nazionaletik banandu izanaren ondorioz. Hiru lurralde historikoetako dekoratzailen elkargoak eratzeko Dekretu horren 2. artikuluan azaldutakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoa izango da Arabako Dekoratzailen Elkargo Profesionalaren jardura-eremua, eta Gasteizen izango du egoitza. Arabako Dekoratzailen Elkargo Profesional bakarra dago, eta lurralde-



eremu berean ezin da lanbide bereko elkargo profesional bat baino gehiago egon (Elkargo Profesionalei buruzko euskal legearen 26.2 artikulua).

- 31.3- Dekoratzailen Elkargo Nazionala sortzeko arauaren arabera (893/1972 Dekretua), dekoratzaile lanbidean jarduteko ezinbestekoa izango da dekoratzaileen elkargoko kide izatea. Dekoratzailen Elkargoan sartzeko prozesua Elkargoak berak egin beharko du, dekoratzaileen titulua dutela egiaztatzen duten pertsonak eskatuta.

Horrela bada, oztopo bi daude dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko: 1) Hezkuntza Ministerioak emandako dekoratzaileen titulua izan behar da. 2) Nahitaez izan behar da elkargo profesional bateko kide, zuzenbide publikoko korporazio horretako estatutuetan ezarritako betekizunak betez. Elkargo profesionaleko kide izan ezean, ezin izango da lanbidean jardun.

- 31.4- Elkargo profesionalak nahitaez sartu behar ditu elkargoan hala eskatzen duten pertsonak, lanbide horretan jarduteko legez eskatzen den titulua dutela eta aplikatu beharreko xedapenetan eta estatutuetan oro har eskatzen diren gainerako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren (EAEko Elkargo Profesionalei buruzko 18/1997 Legearen 39. artikulua).

- 31.5- Euskal Autonomia Erkidegoan lurralde historikoetako elkargoen bitartez antolatu denez dekoratzailearen lanbidea, nahikoa izango da horietako batean sartzea, hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan. Kontuan izan behar da, era berean, Elkargo Profesionalei buruzko Legearen 3.3 artikuluan xedatutakoa. Bertan aipatzen da lanbide bat lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, nahikoa izango dela horietako batean sartzea lanbidea Estatu osoan garatu ahal izateko.

- 31.6- Horrela bada, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak nagusitasunezko egoera du Araban dekorazio-zerbitzuak emateko merkatuan, egoitza profesional bakarra edo nagusia lurralde historiko horretan ezarriko duten tituludunei dagokienez. Nagusitasunezko egoera Dekoratzailen Elkargo Nazionala sortzeko arauan (893/1972 Dekretua) sortu zen. Bertatik eratorri da, banantzearen ondorioz, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofiziala, eta Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2.3 artikulua bitartez dago lotuta lehiaren defentsari buruzko araudiaren eremuan.

32. NAGUSITASUNEZKO EGOERAREN ABUSUA.



32.1- Araudiak erreferentziako merkatuko nagusitasunezko egoera babes dezakeen arren, inoiz ezin du egoera horren abusua justifikatu (Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2.3 artikulua), legeak debekatutako jokabidea baita. Bada, nagusitasunezko egoeraren abusuaren debekua aplikatuko da nagusitasunezko egoera lege-xedapenen bidez ezarri den kasuetan ere. Gauzak horrela, Auzitegi Nazionalaren 2000ko urriaren 13ko epaiak honakoa adierazi zuen: “[...] Lehiaren Defentsari buruzko antzinako 16/1989 Legearen 2.1 artikulua lege edo erregelamendu-xedapen bat aplikatzearen ondoriozko akordio, erabaki, gomendio eta praktikei buruzkoa da, eta inola ere ez du babesten nagusitasunezko egoeraren abusua, ez eta legeak sortutako monopolioen kasuetan ere (LDLren 6.3 artikulua).”

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak hainbat gaitan iritzi izan du [ikus, besteak beste, 1985eko urriaren 3ko epaia, CBEM, 16. puntua, Gaia: 311/84; 1991ko apirilaren 23ko epaia, Gaia: C-41/90, Justizia Auzitegiaren 2000ko otsailaren 10eko epaia (Deutsche Post AG vs. Gesellschaft für Zahlungssysteme mbH GZS) (C-147/97) eta Citicorp Kartenservice GmbH (C-148/97)] legezko monopolio baten onurak jasotzen dituen enpresa batek nagusitasunezko egoera duela ondoriozta daitekeela, Itunaren 86. artikuluan adierazitakoaren arabera. Gauza bera zioen Auzitegi Nazionalak 2005eko otsailaren 7ko epaian (TUBOGAS/REPSOL), Auzitegi Gorenaren 2007ko abenduaren 26ko epaiaren bitartez berretsi zena: *“Lehiaren Defentsari buruzko 16/1989 Legearen 6. artikulua aplikazioa ez dago mugatuta jokabide jakin hori nagusitasuna duen enpresaren botere ekonomikotik eratorzen den kasuetarako, eta nagusitasuna duen enpresak abusuz erabiltzen duen abantaila-egoera sortzen duten lege- edo arau-xedapenetan oinarrituta dagoenean ere aplika daiteke”*.

Dekorazio-zerbitzu profesionalen merkatuan duen nagusitasunezko egoera kontuan hartuta, elkargo profesionalak erantzukizunez bete behar ditu zerbitzuak, merkatu horretako lehia-baldintzak eraldatu gabe. Europako Justizia Auzitegiaren 1981eko Michelín epaia aipatu behar da hemen. Bertan bereziki nabarmendu zuen nagusitasunezko egoera duen enpresa batek lehiaren baldintzak eraldatu gabe mantentzeko duen erantzukizuna.

32.2- Azaldutakoa azalduta, salatzailen titulua duten (hau da, 1464/1995 Errege Dekretuak arautu zuen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua) eta egoitza profesional bakarra edo nagusia Arabako Lurralde Historikoan duten eskatzaileak elkargo horretako kide egiteari dagokionez Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak duen portaera aztertu behar dugu.

Gogoan izan behar da Elkargo Profesionalei buruzko legearen arabera Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak



bertako kide egin behar dituela egoitza edo bulego profesional bakarra edo nagusia Arabako Lurralde Historikoan duten eskatzaileak, estatutuetan eta aplikatu beharreko xedapenetan ezarritako baldintzak betetzen badituzte, aipatutako legearen 15. artikuluan ezarritakoari jarraiki. Gainera, elkargoetan batutako lanbideen sarrerari dagokionez, tratu-berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzen dira. Halaber, aipatzekoa da lanbidea lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, nahikoa dela horietako batean sartzea, hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan.

32.3- Horri dagokionez, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak dekoratzailearen edo barne diseinatzailearen lanbidean jarduteko ezarritako baldintzak zehaztu behar dira. Elkargo Ofizialaren estatutueta 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoan dekoratzaileen edo barne diseinatzaileen lanbidean jardun ahal izateko ezinbestekoa da elkargo horretako kidea izatea. 10. artikuluan elkargoko kide egiteko prozedura formala azaltzen da, hau da: Lehenengo eta behin eskaera aurkeztu behar da idatziz eta, besteak beste, 1999ko irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuen diseinuko titulua (barnealdean espezialitatean), edo lanbide horretan jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen beste tituluren bat, duela azaltzen duen ziurtagiria aurkeztu behar da. Elkargoko kide egiteko eskaera aztertu ondoren, Gobernu Batzarrak idatziz jakinaraziko dio eskatzaileari kide egiteko eskaera onartu edo ukatu den eta, hala badagokio, sartzeko kuota zein den ere jakinarazten zaio.

32.4- LDEA honek aztertzeko azaldu den espedientean, salatzaileek lehiaren agintaritzari jakinarazi diote Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak ez diela elkargoko kide izateko baimenik eman duten titulua ez delako nahikoa lanbidean jarduteko.

Elkargo Ofizialaren legezko ordezkariak berretsi egin ditu salatzaileek azaldu gertakariak, baina bere burua defendatzeko dio salatzaileek ez dutela bidezko administrazio-errekurtsoa ipini Kontseilu Nagusian. Halaber, berretsi egin du 1464/1995 Errege Dekretuan araututa dagoen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua ez dela nahikoa elkargoko kide izateko, eta elkargoko kide izateko eskaerari uko egin izana Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 4.1 artikulua arabera dagoela babestuta.

Salatutako gertakariekin lotuta, LDEZk ebazpen-proposamenean azaldu zuen Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak nagusitasunezko egoeraren abusua egin zuela, ez zela elkargoko kide izateko baimenik eman 1464/1995 Errege Dekretuan araututa dagoen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua dutenei, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2.1 artikulua hautsiz. Nagusitasunezko egoeraren abusuaren inguruko legez



kontrako administrazio-ekintza zehazteko, LDEZk dio baldintza ezberdinak ezarri direla merkataritza- edo zerbitzu-harremanetan (15/2007 Legearen 2.1.d artikulua).

- 32.5- Goi-mailako teknikariaren titulua Arabako Lurralde Historikoan dekoratzailearen lanbidean jarduteko nahikoa ez izateari dagokionez, eta tituludun horiei titulazio nahikorik ez dutelako elkargoko kide izateko baimenik eman ez izanari dagokionez, zehatzago aztertu behar dira Arabako Barne Dekoratzaileen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren estatutuek elkargoko kide izateko ezartzen dituzten betekizunak.

Dekoratzaileen Elkargo Nazionala sortu zuen dekretuak dio elkargoko kide izateko dekoratzailearen titulua eduki behar dela.

Arabako Barne Dekoratzaileen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren estatutuek diote, elkargoko kide izateko bete beharreko baldintzen artean, diseinuko titulua izan behar dela barnealdean espezialitatean, 1999ko irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuenaren arabera, edo lanbide horretan jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen beste tituluren bat. Hau da, Arabako Barne Dekoratzaileen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak irizpide malgu eta ez-formala ezartzen du elkargoko kide izatea eskatu duen pertsonak dekoratzailearen lanbidean jarduteko duen gaitasuna baloratzeko. Lanbidean jarduteko gaitasuna ematen duen titulua barnealdean espezialitateko diseinuko titulua (irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretua) dela esaten duen arren, ez du baztertzeko lanbidean jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen beste edozein titulu. Guztiz kontrakoa, onartu egiten ditu. Hori dela eta, Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarrak elkargoko kide izateko eskaeretan estatutu-araua aplikatzean izan behar duen helburua da dekoratzailearen lanbidean jarduteko jakintza nahikoa izatea dagokion tituluaren ondorioz, eta ez titulu bat ala bestea izatea bakarrik, estatutu-arauan ezarritakoarengatik.

- 32.6- Gauzak horrela, antolamendu juridikoak dekoratzaileei lanbidean jarduteko ematen dizkien eskumen profesionalak zeintzuk diren jakin behar da, salatzaileek duten tituluak lanbidean jarduteko jakintza nahikoa ematen duen zehaztearren, elkargoaren estatutu-tako 9. eta 10. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Dekoratzaileen eskumen profesionalak arautzen dituen 908/1977 Errege Dekretuak dekoratzaileen eskuduntzak mugatu zituen. Hona hemen zerrenda:

- a) Dekorazio-proiektuak formulatu eta idaztea, eraginkortasun juridiko zein erantzukizun osoarekin, betiere egitura elementu gogorrei, eraikinaren konfigurazioari eta obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei eragiten ez badiete, hain zuzen, onetsitako proiektuan xedatutakoak eta dagozkion administrazio-lizentziak ematea eragin dutenak.



- b) Dekorazio-lanak zuzentzea, aurreko ataleko mugen barruan, parte hartzen duten elementu guztiak koordinatuz eta irtenbide egokiak zehaztuz. Lana egiteko modua programatu, kontrolatu eta ziurtatzea.
- c) Dekorazio-lan guztiei aplikatu beharreko elementuen diseinuak asmatzea.
- d) Dekorazio-lan horietan parte hartzen duten material eta elementuen kalitatea kontrolatu eta baloratzea.
- e) Dekorazio-proiektuei eta -lanei buruzko balorazio, adituaren txosten, txosten eta irizpenak egitea.

32.7- Frogatutako gertakarietatik ondorioztatutakoari jarraituz, ondoren azaldu diren tituluek dekoratzaileen elkargoko kide izateko eta, horrenbestez, aipatu berri diren eskuduntzak garatzeko aukera ematen dute. Hona hemen:

- Arte aplikatuetako graduatuaren titulua, uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena.
- Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan, irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuena.
- Diseinuko titulua, barnealdean espezialitatean, irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuena.

Arabako Barne Dekoratzzaileen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak onartu egiten du besteak beste arte aplikatuetako graduatuaren titulua (uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuak araututako ikasketei eta martxoaren 18ko 799/1984 eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuen babespean garatutako plan esperimentalei dagokiena) dutela egiaztatzen duten eskatzaileak elkargoko kide egitea, bai eta irailaren 24ko 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuen diseinuko titulua (barnealdean espezialitatean) duten eskatzaileak ere.

Aldiz, salatutakoak berretsi dituen salatutako gertakarietatik ondorioztatu denez, elkargoak ez du baimenik ematen irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dutela egiaztatzen duten eskatzaileak elkargoko kide egiteko. Izan ere, bertan irakatsitako jakintzek dekoratzailearen lanbidean jarduteko gaitasunik ematen ez dutela uste du.

Altzariz janztearen, Arkitektura Iragankorraren, Erakusleho-apainketaren, Lorategiko Gauzen eta Dekorazio Lanen Proiektu eta Zuzendaritzaren alorrekoak diren Arte Plastikoetako eta Diseinuko Goi Mailako teknikari



tituluak ezarri zituen irailaren 1eko 1464/1995 Errege Dekretuak diotenaren arabera, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokionez, profesional tituludunak araututako lanbidean jarduteko gaitasuna ematen dioten jakintzak izan beharko ditu, berariazko eskuduntzak izan beharko dituela obren proiektuak egiteko, eta obrak kudeatu eta zuzentzeko eremuan.

Gauzak horrela, profesionalak gaitasuna izango du maila horri dagozkion interiorismoko lanen proiektuak egin eta lan horiek kudeatu, koordinatu eta zuzentzeko, bai eta goragoko mailek egindako proiektuak egin, kudeatu eta koordinatzeko ere. Horretarako, goragoko maila duten tituludunekin zuzeneko harremana izanez proiektuak eginez, teknikarien lanak kudeatu eta koordinatuz eta proiektua egitean parte hartzen duten gainerako ogibideak kudeatu eta koordinatuz hartzen du parte. Profesional independentea ere izan daiteke, maila horri dagozkion proiektuak garatuz.

32.8- Honako hauek dira profesional horiei dagozkien lan adierazgarrienak:

- 1.-Maila horri dagozkion dekorazio-lanen proiektuak garatu eta zuzentzea, behar bezala burutzeko beharrezko jakintza eta teknikak aplikatuz.
- 2.-Bere arloari dagozkion sortze-forma, -material eta -prozesuak ikertzea.
- 3.-Eremu profesional horri buruzko berariazko dokumentazioa aztertzea.
- 4.-Taldean edo bakarka, proiektuaren irudikapen grafikoa egitea, estudio edo tailerretan, kudeatzeko eta koordinatzeko aukerekin.
- 5.-Lan teknikoak, eta proiektua egitean parte hartzen duten lanbideak eta antzekoak, koordinatzea.

32.9- Dekoratzaileri dagozkien arestian aipatutako ahalmen profesionalak aztertu ostean, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariek gara ditzaketen lan adierazgarrienekin lotuta, argi ondoriozta daiteke goi-mailako teknikari horiek titulu hori egitearen ondorioz jasotzen dituzten jakintzek gaitasun nahikoa ematen dietela dekoratzaileen lanbidean jarduteko. Hori dela eta, elkargo profesionalak aintzat hartu beharko du goi-mailako teknikariaren titulu hori, dekoratzailearen lanbidean jarduteko titulu nahikoa dela esanez. Gauzak horrela, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua duten eta Arabako Barne Dekoratzaileren eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko kide izateko nahitaezko baldintza betetzea eskatzen dutenek, bete egiten dute aipatutako elkargo ofizialaren estatutuetoako 10. artikuluan ezarritako betekizuna, eta elkargoko kide egin behar dira, dekoratzailearen lanbidea garatu ahal izan dezaten.



Bestela, elkargo ofizialak eragotzi egingo lieke dekoratzaileen zerbitzuen erreferentziako merkatuan sartzea titulu hori duten eta egoitza bakar edo nagusia Arabako Lurralde Historikoa dutenei eta, horrela, erreferentziako merkatu horretan duen nagusitasunezko egoeraz abusatuko luke, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikuluan ezarritakoaren aurka eginez.

32.10- Abusua nabaria da, ez baitie erreferentziako merkatuan sartzen uzten titulu horrekin elkargoko kide egiteko eskatzen duten eta egoitza profesionala, nagusia edo bakarra, Arabako Lurralde Historikoan duten pertsoneri, ez duela jarrera bera lanbidean jarduteko gaitasun nahikoa ematen duten beste titulu batzuk dituzten tituludunekin.

32.11- Ez da arraroa, beraz, Bizkaiko Lurralde Historikoan jarduten duten profesional dekoratzaileek, Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialaren bitartez, besteak beste salatzaileen titulua dutela (1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuen Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dekorazio-lanen proiektuetan eta zuzendaritzan) egiaztatzen duten eskatzaileak elkargoko kide izatea onartzea. Elkargoko kide izanez, aukera dute dekoratzailearen lanbidea batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzeko eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidego guztian, Araban barne, eta Estatuko gainerako lurraldeetan. Kontuan izan behar da, gainera, Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko 18/1997 Legearen 40. artikulua eta Elkargo Profesionalei buruzko 2/1974 Legearen 3. artikulua aplikatuz, lanbide bat lurraldekako elkargoen arabera antolatzen denean, dekoratzaileen kasuan bezala, nahikoa izango da horietako batean sartzea, hau da, egoitza profesional bakarra edo nagusia duen lurraldeko elkargoan, Estatu osoan jardun ahal izateko. Ildo horri jarraituz, eta Elkargo Profesionalei buruzko legearen 3. artikuluekin bat etorrita, Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa daukaten lurraldetik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela-eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparteko beste ordainik ere exijitu.

Salatzaile biak, Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak ez zuenez onartzen 1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluekin elkargoko kide egitea, Arabako Lurralde Historikotik Bizkaikora aldatu dute egoitza edo bulego nagusia. Horrela, aipatutako titulazioa dutela egiaztatu ondoren, Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialeko kide egin dira eta, ondorioz, dekoratzailearen lanbidean jardun daitezke legez, batez ere Bizkaian, baina baita beste edozein probintzian ere. Horretaz guztiaz gain, instruktoreak ebazpen-proposamenean esan duen bezala, Gasteizko Arte eta Diseinuko Goi Mailako Eskolaren bitartez azaldu da beste tituludun



batzuek ere Bizkaiko elkargoko kide egin behar izan dutela, eta horrek desabantailak dakartza, joan-etorriak egin behar direlako, denbora eta diru aldetik.

- 32.12- Argudio-ildo berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, eta zehatzago esanda Administrazioarekiko Auzien Salak, abenduaren 29ko 1244/2000 epaiaren bitartez, 902/1977 Dekretuak dekoratzaileei emandako eskuduntzak aztertu ostean, honakoa ondorioztatu zuen:

“Obra- edo instalazio-lizentziak eskatzeko eskaera ororekin aurkeztu behar den proiektu teknikoa (Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiaren 9. art. [RCL 1956, 85 eta NDL 22516]) obra edo instalazioa behar bezala egingo dela adierazten duen bermea da. Proiektu horrek teknikari batek egindako azterlana du oinarri, eta teknikariak horretarako eskumen nahikoa izan behar du, espezializazio profesionalaren irizpideekin bat etorrita. Hori aipatuta, auzitan den gaia ebazteko abiapuntu moduan, aipatzekoa da prozesu honetako proiektuaren egileak arte aplikatuetako graduatuaren titulua eskuratu zuela, Logroñoko Arte eta Lanbide Artistikoen Eskolan, 1981eko ekainaren 27an. Titulu profesionalari buruzko datu hori funtsezko atala da gaia argitzeko, eta ez horrenbeste elkargoko kide diren dekoratzaileak, arte plastikoetako profesionalak diren aldetik, aurkeztutakoa bezalako proiektuen egileak izan daitezkeen, hainbat titulu izanda izan baitaiteke dekoratzailea, titulua edukitzea baita lanbidean jarduteko eskubidea ematen duena, eta ez dekoratzailea izatea (Konstituzioaren 36. art.). Kontuan izan behar da, era berean, Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikuluan azaldutako Estatuaren eskumen eskusiboan artean honako hau dagoela: Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea, eta Konstituzioaren 27. artikulua garatzeko oinarritzko arauak ematea, botere publikoek alor horretan dituzten betebeharrak betetzen direla bermatzeko. Halaber, 27. artikulua 8. atala ere aipa daiteke, bertan ezarritakoaren arabera botere publikoek hezkuntza-sistema ikuskatu eta homologatuko baitute, legeen betetzea berma dadin.

Dekoratzaileen edo arte plastikoetako profesionalen eskuduntza eta ahalmenak apirilaren 1eko 902/1977 Dekretuan azaldu ziren (RCL 1977, 937 eta ApNDL 3509). Bada, lehenengo artikuluan ezarritakoaren arabera, honakoak dira eskuduntza horiek: Dekorazio-proiektuak formulatu eta idaztea, betiere egitura elementu gogorrei eta obra nagusiaren zerbitzu komuneko instalazioei eragiten ez badiete, hain zuzen, onetsitako proiektuan xedatutakoak eta dagozkion administrazio-lizentziak ematea eragin dutenak; dekorazio-lanak zuzentzea, eta lana egiteko modua programatu, kontrolatu eta ziurtatzea; dekorazio-lan guztiei aplikatu beharreko elementuen diseinuak asmatzea; dekorazio-lan horietan parte hartzen duten material eta elementuen kalitatea kontrolatu eta baloratzea; dekorazio-proiektuei eta -lanei buruzko balorazio, adituaren txosten, txosten eta irizpenak egitea.

Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa indarrean sartu zenean (RCL 1990, 2045), lege horretako 47, eta 48. artikuluek araubide bereziko irakaskuntza gisa arautu zituen, berariazko heziketa-zikloetan, Arte plastikoetako eta diseinuko irakaskuntzak, baliokideak direla Lanbide Heziketarekin, aipatutako legearen IV. kapituluaren arabera, erdi-mailari eta goi-mailari dagokienez. Gainera, martxoaren 11ko 440/1994 Errege Dekretuak (RCL 1994, 1012) baliokidetzen sistema ezarri



zuen urriaren 3ko 1/1990 Legea indarrean sartu aurreko arte-irakaskuntzen eta heziketa-ziklo berrien artean.

Hori guztia aztertuta, 440/1994 Errege Dekretuaren 4. artikuluan ipini behar dugu arreta. Bertan ezarritakoaren arabera, Arte eta Lanbide Artistikoen Eskoletan emandako ikasketei dagokien Arte Aplikatueta eta Lanbide Artistikoetako graduatuaren tituluak [uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuan araututa (RCL 1963, 1715 eta NDL 11196)] eta zentro horietako plan esperimentalei dagozkien tituluak [martxoaren 28ko 799/1984 Errege Dekretuan (RCL 1984, 1122, 1275 eta ApNDL 2189)], eta maiatzaren 9ko 942/1986 Errege Dekretuan (RCL 1986, 1540) aurreikusita] baliokideak dira, ondore guztietarako, 1/1990 Legearen 35.2 artikuluan azaldutako goi-mailako teknikariaren tituluarekin, eta titulu hori Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketekin pareka daiteke. Horrenbestez, **ondore guztietarako**, kontuan izan behar dugu proiektuaren egilea, aipatutako baliokidetasunaren ondorioz, goi-mailako teknikaria dela.”

32.13- Arestian azaldutakoaz gain, 440/1994 Errege Dekretuaren 4. artikulua ere aipatu behar da. Bertan ezarritakoaren arabera, Arte eta Lanbide Artistikoen Eskoletan emandako ikasketei dagokien Arte Aplikatueta eta Lanbide Artistikoetako graduatuaren tituluak (uztailaren 24ko 2127/1963 Dekretuan araututa) eta zentro horietako plan esperimentalei dagozkien tituluak (799/1984 Errege Dekretuan eta 942/1986 Errege Dekretuan aurreikusita) baliokideak dira, ondore guztietarako, 1/1990 Legearen 35.2 artikuluan azaldutako goi-mailako teknikariaren tituluarekin, eta titulu hori Goi Mailako Lanbide Heziketako ikasketekin pareka daiteke. Gainera, aipatutako 440/1994 Errege Dekretuak ezarritakoari jarraiki, Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1999ko maiatzaren 14ko Aginduak parekatu egin zituen Arte Aplikatueta graduatuaren titulua (barne diseinu eta dekorazioaren espezialitateetan) eta Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua (Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzan).

Gauzak horrela, ezin da aldeko iritzirik eman elkargoaren errugabetze-argudio honen inguruan: Elkargoak dio parekatze horrek irakaskuntzaren eremuan bakarrik duela garrantzia, eta ez lanbidearen jardunean. Izan ere, elkargo profesionaleko kide izateko ezinbestekoa da lanbidean jarduteko gaitasuna ematen duen titulu bat izatea, esaterako salatzaileek daukaten titulua. Gainera, arauak berak ere argi dio parekatze hori ondore guztietarako dela.

32.14- Laburbilduz, dekoratzaileei lan profesionalak garatzeko lege dagozkien eskumenak eta ikasten dituzten irakasgaiak eta jasotzen dituzten jakintzak erkatzearekin bakarrik ikusten da salatzaileek duten titulazioa nahikoa dela dekorazio-zerbitzu profesionalak emateko. Horixe ondorioztatu da Dekoratzailen eskumen profesionalak arautzen dituen 902/1977 Errege Dekretua aztertuz eta Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua arautu zuen 1464/1995 Errege Dekretuarekin alderatuz.



Baina, azaldutako guztiaz gain, argi dago Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialak elkargoko kide egiten dituela egoitza profesional nagusi edo bakarra Bizkaiko Lurralde Historikoan duten eta Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua dutela egiaztatzen duten eskatzaileak. Horrek aukera ematen die elkargoko kideei dekoratzaileen lan profesionalak garatzeko, batez ere Bizkaiko Lurralde Historikoan, baina baita Estatuko beste edozein lekutan ere, zerbitzu profesionalak emango dituzten jurisdikzioko dekoratzaileen elkargo profesionaleko kide egin behar izan gabe eta bestelako gaikuntzarik egin behar izan gabe. Hau da, aipatutako titulua dekoratzailearen lanbide profesionala garatzeko nahikoa dela dioen iritzi teorikoa alde batera utzita, titulazioa dekorazio-zerbitzu profesionalak garatzeko nahikoa dela dioen behin betiko froga da titulu horrekin Bizkaiko elkargo profesionaleko kide izan daitekeela, eta zerbitzu profesionalak eman daitezkeela egoitza nagusia edo bakarra duen lurraldean. Salatzailak ere Bizkaiko elkargoko kide dira, ez zietelako Arabako elkargoko kide izateko baimenik eman. Bada, batez ere Bizkaian eman ditzakete zerbitzu profesionalak, baina baita beste lurralde-eremu batzuetan ere, baita Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialaren jurisdikzioan ere. Gainera, zehapen-espeditzeko dokumentaziotik ondorioztatu den bezala, Bizkaiko Dekoratzailen Elkargo Ofizialaren kasua ez da bakarra dekoratzaileen Estatuko elkargo guztien artean.

- 32.15- LDEA honi deigarri egiten zaio titulu bera nahikoa izatea autonomia-erkidegoko lurralde historiko bateko elkargo ofizialak hartzen duten lurraldeko jurisdikzioan lanbide bat garatzeko, baina beste batzuen jurisdikzioan (mugakideak direnak), nahikoa ez izatea. Ez da homogenea, ez arrazoizkoa, ez harmonikoa, ez logikoa, ez koherentea, ez legekoa. Tituluak Bizkaiko elkargo ofizialeko kide izateko eta dekorazio-zerbitzu profesionalak bertako jurisdikzioan emateko balio badu —eta, ondorioz, zerbitzuak Estatuko gainerako lekuetan, baita Araban ere, emateko balio badu—, nahikoa izango da zerbitzuak Arabako elkargo ofizialaren jurisdikzioan emateko ere. Titulu horrek aukera ematen badu Bizkaian dekorazio-zerbitzu profesionalak emateko, eta egunez egun ematen badira, ez da logikoa Araban nahikoa ez izatea. Lurralde historiko bietan ematen diren dekorazio-zerbitzu profesionalak berdin-berdinak dira, eta ezberdintasun bakarra zerbitzu profesional horiek emateko jurisdikzioa da. Gainera, gogoan izan behar da elkargo bateko jurisdikzioan lanbidea garatzeko balio badu, horrek aukera ematen duela lanbidea beste elkargo batzuen jurisdikzioan ere garatzeko, baita elkargoko kide emateko aukerarik eman ez dutenen jurisdikzioan ere.

Dagoeneko ez dagoen Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Azterlanen eta Araubide Juridikoaren zuzendariak, elkargo profesionalen inguruko eskumena zuenak, honakoa adierazi zuen: “[...] ez dago titulu horrek



Arabian ondore berberak azaltzen ez dituela justifikatzen duen legezko argudiorik". (0013 folioa)

32.16- Arestian aipatutako guztiari dagokionez argi eta garbi esan behar da nabaria dela titulu hori egoki eta nahikoa dela dekoratzailearen lanbidean jarduteko, horretan lan egiteko gaitasun nahikoa ematen duelako.

32.17- Hori dela eta, Arabako Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarrak salatzaileek aipatutako titulua dutenei elkargoko kide egitea ukatu izanak Elkargo Ofizialaren Estatutuetoako 10. artikulua hausten du. Ondorioz, elkargo ofizialak merkatu adierazgarrian duen nagusitasunezko egoera kontuan hartuta, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua ere hautsi da, nagusitasunezko egoeraren abusua egin baita, Arabako Lurralde Historikoan dekorazio-zerbitzuak emateko merkatua itxiz.

33. NAGUSITASUNEZKO EGOERAREN ABUSUA EZ DAGO BESTE LEGEREN BATEN BIDEZ BABESTUTA

Hala eta guztiz ere, kasu zehatz honi Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 4.1 artikulua aplikatu behar zaion aztertu behar da. Artikulu horri jarraiki, aipatutako legearen 1., 2. eta 3. artikuluetan ezarritako debekuak ez zaizkie aplikatzen beste lege baten aplikaziotik eratorritako jokabideei.

Horri dagokionez, elkargo ofiziala Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 4.1 artikulua aplikatzearen alde azaltzen da eta, beraz, kasu zehatz honi Lehiaren Defentsari buruzko Legean ezarritako debekuak ez aplikatzearen alde. Elkargo ofizialak dio Elkargo Profesionalei buruzko Legea betetzen baino ez dabilela. LDEA honek ezin du ados egon gogoeta horrekin. Elkargo ofizialak, legez, nahitaez egin behar du bertako kide hala eskatzen duen profesional oro, estatutuetan eta aplikatu beharreko xedapenetan oro har eskatutako betekizunak betetzen dituela egiaztatu ondoren. Dekoratzailen Elkargo Nazionala sortu zuen 893/1972 Dekretuak ezarritakoaren arabera, elkargoko kide izan eta dekoratzailearen lanbidean jarduteko betekizunetako bat Hezkuntza Ministerioak emandako dekoratzailearen titulazioa edukitzea da. Arabako Dekoratzailen Elkargo Ofiziala 378/1998 Dekretuaren bitartez sortu zen, Elkargo Nazionaletik bereizi zenean. Bada, bere estatutuetoako 10. artikuluan daude ezarrita dekoratzailearen lanbidean jarduteko betekizunak. Betekizun horien artean, bidezko eskaera egiteaz gain, 1496/1999 Errege Dekretuak ezarri zuen diseinuko titulua (barnealdean espezialitatean) edukitzeari buruzko egiaztagiria aurkeztu behar da, edo lanbide horretan jarduteko gaitasun nahikoa ematen duen beste tituluren bat edukitzeari buruzko egiaztagiria. Arestian esan den bezala, Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua sortu eta arautu zuen 1464/1995 Errege Dekretuak dekoratzailearen lanbidean jarduteko



gaitasuna ematen dio titulu hori duenari, Arabako Elkargo Ofizialaren estatutuetako 10. artikuluan eskatzen den bezala.

Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak ez du zorrotz ezartzen dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko aukera ematen duen titulu bakar bat, lanbidean jarduteko aukera ematen duten beste titulu batzuk daudela aurreikusten baitu, betiere lan egiteko gaitasun nahikoa ematen badute.

Horixe da lanbidean jardun ahal izateko aukera ematen duen irizpide nagusia, hau da, titulazio jakin bat egin ostean jasotako jakintzek dekoratzaileei dagozkien zereginak gauzatzeko gaitasun nahikoa eman dezatela. Zeregin horiek Dekoratzailen eskumen profesionalak arautzen dituen 902/1977 Errege Dekretuan daude ezarrita. Dekoratzailen lanbidean jarduteko gaitasuna ematen duen titulazioa, aipatu den bezala, ez da Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak gaur egun eskatzen duen titulazioa bakarrik, salatzaileek duten titulazioak ere gaitasun hori ematen duelako. Horrexegatik ezin da ados egon elkargoak defendatutako errugabetze-argudioarekin, berak diotenaren arabera izandako portaera legez babestuta baitago Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 4.1 artikuluari jarraiki. Baina ez da horrela, ez dago babestuta; aldiz, legez dago ezarrita elkargoko kide egin behar direla egoitza bakarra edo nagusia elkargoaren jurisdikzioan duten eta estatutuetan ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskatzaileak. Bada, titulazioaren kasuan, lanbidean jarduteko gaitasuna ematen duen titulazio oro onartzen da, eta horixe da Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluaren kasua, egiaztatu den bezala.

Azaldu berri den horretaz gain, ezin da ados egon elkargoarekin lanbidearen jardunaren eta titulu akademikoaren artean egiten duen bereizketari dagokionez. Alderantziz, lanbidearen jarduna oso lotuta dago horretarako gaitasun nahikoa ematen duen titulazioarekin. Lehenago azaldu den bezala, dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko, Arabako elkargoaren estatutuetan azaldutakoaren arabera, elkargoko kide izan behar da eta, era berean, dekoratzailearen lanbidean jarduteko gaitasuna ematen duen titulua eduki. Gogoan izan behar da Dekoratzailen eskumen profesionalak 902/1977 Errege Dekretuan daudela araututa, eta dekoratzailearen lanbidean jardun ahal izateko aukera ematen duten titulazioak Arabako elkargo ofizialak horretarako aitortzen dituenak eta salatzaileek daukaten titulua direla. Elkargoko kide izan eta lanbidean jardun ahal izateko aukera ematen duten tituluak ez dituzte aldatzen 902/1977 Errege Dekretuan ezarritako eskumen profesionalak, baina lanbidean jarduteko gaitasuna ematen die titulu horiek dituzten pertsoneri, lanbidean jarduteko jakintza nahikoak eskuratzen direlako horien bitartez.



Arestian aipatu den bezala, 440/1994 Errege Dekretuak esan zuen aipatutako tituluak baliokideak direla ondore guztietarako. Era berean, berriro aipatu behar da Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren 1999ko maiatzaren 14ko Agindua. Bertan ezarritakoaren arabera, izaera esperimentaleko Arte plastikoetako eta Diseinuko erdi-mailako eta goi-mailako heziketa-zikloetako titulu eta espezialitateak bateragarriak dira I. eranskinean azaldutako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluekin.



34. ZEHAPENA ZEHAZTEA

34.1.- Egiaztatuta geratu da Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 2. artikuluan azaldutako legez kontrako administrazio-ekintza bat egin duela, nagusitasunezko egoeraz abusatu duelako merkatu adierazgarrian. Izan ere, ez du onartu Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua duten pertsonak elkargoko kide egitea. Hori guztia dela eta, LDEA honek isun-zehapena ezarri behar du. Izan ere, Lehiaren Defentsari buruzko Legearen 63.1 artikuluan arabera, LDEAk isun-zehapenak ezarri ahal izango dizkie lehiari buruzko araudian xedatutakoa nahita edo utzikeriagatik hausten duten enpresa, enpresen elkarte edo bestelako eragile ekonomikoei. Arau-hausteari emandako sailkapenaren arabera, eta enpresa arau-hauslearen negozio-bolumenaren irizpide objektiboa kontuan hartuta, Lehia Agintaritzak ezar litzakeen isunaren zenbatekoaren muga kuantitatiboak zehazten ditu legeak. Aurrekoaz gain, Lehiaren Defentsari buruzko Legeak, 64. artikuluan, isunen zenbatekoa zehazteko irizpideak ditu ezarrita, Lehia Agintaritzak jokabide arau-hausleen inguruabar berezien arabera doi ditzan isun-zehapenen zenbatekoak.

Arau horiek erabili behar ditu LDEA honek, arestian deskribatu diren araudiaren arau-haustea egin izanagatik Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari ezarri beharreko isun-zehapena zehazteko.

34.2.- Nagusitasunezko egoeraren abusua arau-hauste larri edo oso larritzat har daiteke, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera. Hori dela eta, Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 63. eta 64. artikuluetan aipatutakoaren arabera isuna ezarriko da.

Legeak dio arau-hauste larria izango dela nagusitasunezko egoeraz zentzu negatiboan abusatzea, eta bertan adierazten da jokabide hori larria izango dela oso larritzat hartzen ez denean. Nagusitasunezko egoeraren abusua oso larria izan dadin, berriki liberalizatutako merkatu batean diharduen enpresa batek buru beharko du, bere merkatu-kuota ia monopolioa bestekoa izan beharko da edo eskubide bereziak edo eskusiboak izan beharko ditu.

LDEA honek uste du, iritzia emateko azaldu zaion gertakaria aztertuta, lehiari buruzko araudiaren arau-hauste oso larria egin dela ondoriozta daitekeela. Izan ere, elkargo ofizialak egoera eskusibo eta baztertzaila du egoitza profesional nagusia edo bakarra Arabako Lurralde Historikoan ezarriko duten eskatzaileak elkargo ofizialeko kide egin ahal izateko eta, beraz, Arabako Lurralde Historikoan dekorazio-zerbitzu profesionalak emateko merkatuan jardun ahal izateko.



- 34.3.- Isunaren zenbatekoa zehazteko orduan, kontuan izan beharko da elkargo ofizialak erantzukizun berezia duela egoitza profesional nagusia edo bakarra Arabako Lurralde Historikoan ezarriko duten eskatzaileei dekoratzailearen lanbidean jarduteko aukera emateko, batez ere bakarra delako lurralde horretan. Halaber, kontuan hartu behar da 18/1997 Legeak, 39. artikulua bitartez, ezarri egiten duela nahitaez onartu behar zaiola elkargoko kide izatea eskatzen duen orori, lanbidea gauzatzeko lege ezarritako titulua duela egiaztatzen ondoren.
- 34.4.- Espedienteko datuen arabera, 74 kide ditu Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak, eta guztiek dituzte 63ko ikasketa-planeko eta 84/86ko ikasketa-planeko titulua. Elkargoko kide batek ere ez du salatzaileek duten titulua. Elkargo ofizialak uko egin dio 1464/1995 Errege Dekretuak sortu zuen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako Arte plastikoetako eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren titulua duten pertsonak elkargoko kide egiteari.
- 34.5.- Halaber, LDEA honek, zehapen-isunaren zenbatekoa zehaztearen, dekorazio-zerbitzu profesionalak emateko merkatuak Arabako Lurralde Historikoan duen hedadura ere izan beharko du kontuan. Era berean, kontuan izan behar du 2009. urtean elkargo ofizialaren negozio-bolumena murriztu zela. Izan ere, 2008. urtean, 423.862,63 euroko negozio-bolumena izan zuen elkargo ofizialak, eta 2009ko ekitaldi ekonomikoan 128.497,72 eurora murriztu zen.
- 34.6.- Arau-haustearen izaera eta arestian aipatutako gogoeta guztiak kontuan hartuta, LDEA honek hamabi mila euroko (12.000 euro) zehapen-isuna ezarri dio Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari.



Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegi honek, arestian aipatutakoa oinarri hartuta, honakoa

EBATZI DU:

LEHENENGOA.- Adierazi egingo da Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak Lehiaren Defentsari buruzko 15/2007 Legearen 2. artikulua (nagusitasunezko egoeraren abusua debekatzen duena) hautsi duela, ez duelako onartu 1464/1995 Errege Dekretuaren bitartez arautu zen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua duten pertsonak elkargoko kide egitea.

BIGARRENA.- Hamabi mila euroko (12.000 euro) zehapen-isuna ezarriko zaio Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialari.

HIRUGARRENA.- Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialeko Gobernu Batzarrari aginduko zaio, bi hilabeteko epean, honakoa jasotzen denetik aurrera zenbatzen hasita, 1464/1995 Errege Dekretuaren bitartez arautu zen Dekorazio-lanen proiektu eta zuzendaritzako goi-mailako teknikariaren titulua duten pertsonak elkargoko kide egitea onartzeko erabakia har dezala. Agindutakoa bete ezean, sei ehun euroko (600 euro) hertsatzeko isuna ezarriko da atzeratzen den egun bakoitzeko.

LAUGARRENA.- Arabako Barne Dekoratzailen eta Diseinatzaileen Elkargo Ofizialak aurreko ataletan ezarritako betebeharrak guztiak bete dituela justifikatu beharko du Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan.

BOSGARRENA.- Agindeia egingo zaio Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, ebazpen hau guztiz betetzen den begiratu eta zain dezan.

Ebazpen hau Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuari, Lehiaren Batzorde Nazionalari eta interesdunei jakinarazi beharko zaie. Agerraraziko da ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela eta bere kontra administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ipini ahal izango dela. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan ipini beharko da errekurtsioa, bi hilabeteko epean, jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko apirilaren 20a



LEHENDAKARIA
JOSEBA ANDONI BIKANDI ARANA

LEHENDAKARIORDEA
JUAN LUIS CRUCELEGUI GARATE

KIDEA
MARIA PILAR CANEDO ARRILLAGA

IDAZKARIA
JOSE ANTONIO SANGRONIZ OTAEGI



ERANSKINA

JARRAIBIDEAK

Ezarritako zehapen ekonomikoa ordaintzeari dagokionez

Lehenengoa.- Zenbatekoa ordaintzeko zuzeneko diru-sarrera egin beharko da erakunde hauen edozein sukurtsaletan: CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXA 3035-0012-77-0120900367; CAJA VITAL-VITAL KUTXA 2097-0178-12-0015172561; BBK 2095-0611-05-2131000143; KUTXA GIPUZKOA 2101-0381-09-0002788214; edo BANCO BILBAO VIZCAYA ARGENTARIA (BBVA) 0182/5685/07/0000226271. Diru-sarrera “Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren” izenean egin beharko da, isuna ezartzea eragin duen eta Auzitegi honetan dagoen espediente-zenbakia zehatzuz.

Bigarrena.- Isuna ordaintzeko epeei dagokienez, abuztuaren 31ko 212/1998 Dekretuak onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Dirubilketa Erregelamenduaren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraitu beharko zaio (1998ko urriaren 1eko 187. zenbakiko EHAA).

Hirugarrena.- Isuna ordaindu izanaren egiaztatzea aurkeztu beharko da Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzuan (Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ).